

## **1997ko MAIATZAren 7ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamazazpiko maiatzaren zazpian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala, Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz; eta Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- ETXEGARATE BIKOIZTEAREN ALDEKO PLATAFORMAREN ADIERAZPENA**

Udal honetako Alkateak Etxegarateren Bikoizketaren aldeko Plataformari zuzentzen zaio, organismo horretako eskubide osoko kide den aldetik, hurrengo gaiak jorrazteko lehenbailehen bilera bat egin dezagun eskatuz: 1) Gipuzkoako Foru Diputazioa eta Etxegarateko Bikoizketaren aldeko Plataformaren arteko Agiriaren behin betiko idazketa; 2) Udalek aurkezturiko emendakinak eta eztabaida; 3) Gure eskualdeetako Gizarte-Taldeentzako sostenguzko behin betiko eskutitza; 4) Komunikabideei jakinaraztea.

1.- "AURREKINETAKO" bigarren hurrengo ERANTSIZKO EMENDAKINA planteatu dugu: "aurreko puntuan" esakunearen ondotik, "horren amiaera 1998 urterako finkatuz" eranstea.

2.- "ADIERAZTEN DUTE" diotenean, BIGARREN PUNTUARI hurrengo EMENDAKINA eta IDAZKETA BERRIA egitea planteatzen dugu, honela: "Gipuzkoako Foru Diputazioko Herri Lanetako Departamentuak, Bikoizketaren II eta III Urratsak aldeberean egiteko asmoa agertzen du, 11.407.000.000,-pta.tako aurrekontuaz, hurrengo aurrekontu-ekitaldietan banaturik:

1997 urtea	2.000.000.000 pta.
1998 urtea	4.000.000.000 pta.
1999 urtea	5.407.000.000 pta.

Lan horiek 1999ko Abenduaren 31an inauguratuko dira.

- 3.- "ADIERAZTEN DUTE" dioenean, HIRUGARREN PUNTUARI hurrengo EMENDAKINA eta IDAZKETA BERRIA egitea planteatzen dugu, honela: "Bikoizketa honetan ez da bidesaririk aplikatuko eta ingurugiroa ahalik eta zorrotzen errespetatuko du lanen exekuzioak, Ingurugiroko Eraginaren Azterketa (I.E.A.) egin beharko delarik. Beste aldetik eta aurreko atalekin bat eginik, lehendik dagoen taxueraz ahalik eta gehien baliatuko da bide berria eta bera hartuko du oinarri. Bideak gaurregun dauzkan herrietarako irispide guzti-guztiak ezarriko dira berriro; eginkizun horretan, eragindako Udalekin elkar harturik jardun beharko da.
- 4.- LAUGARREN ATALEAN EMENDAKINA honela geratuko da idatzirik: "N-1 bidearen bikoizketaren inaugurazio-data ez da 1999ko abenduaren 31tik geroratuko".

Etxegarate bikoiztearen aldeko plataformaren adierazpena eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

### 3.- KREDITUZKO KONTU KORRONTEAREN ESKAERA

Kredituzko Kontu Korrontea bat hitzartzeko bideratu den prozedura aztertu, Abenduaren 28ko 39/1988 zenbakidun, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Legearen 52 eta 53 artikulua eta Kontuhartzaitzak luzatutako txostenarekin ados, Udal Batzarrari proposatu zaio:

- 1.- Kredituzko Entitatearen batekin, epe motzerako izango den, HAMABOST MILIOI (15.000.000) peztatako, kredituzko kontu korronte bat hitzartzea, baldintza hauekin:

Interesa: MIBOR + 0,25 %

Irekierako Komisia: 0,50%

- 2.- Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jauna ahalmenu, behar diren agiriak formalizatzeko.

Kredituzko Kontu Korrontearen eskaerako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### 4.- FRONTOIAKO EMERJENTZI PROIEKTUA

Alkateak, Udaleko Arkitektoa den, Jose M<sup>a</sup> Irazusta Jaunak erredaktatutako, Lizartzako Udal Frontoiaren Larrialdi Plana aurkeztu du.

Plana hori aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### 5.- HONDAKIN SOLIDOEN TRATAMENDURAKO MANKOMUNITATEAREN ERAKETA SUSTATZEKO PROPOSAMENA

Irura, Albistur, Leaburu-Txarama, Lizartza, Elduain, Ikaztegieta, Amezketa, Hernialde, Aduna, Belauntza, Anoeta, Orendain, Altzo, Baliarrain, Abaltzisketa, Alkiza eta Oresako Udalek, Hondakin Solidoen Tratamendua eta honen inguruan egin behar den sentsibilizazio lanaren zerbitzurako Mankomunitate bat eratzea beharrezkoa ikusten dute, besteen artean arrazoi hauengatik:

Bertako biztanleek, benetako gizarte eta kultura egitatetzat hartzen dute Tolosaldea, lurralde antolatzailearen baten boluntarismo soila litzakeenetik urrun. Bertan, beste herri guztietaz aparte, Tolosa da eskualdeko erreferentzia gunea, bere ospe historikoagatik eta bizilagunik gehien duen udalerrria eta eskualdeari izena ematen dion gunea delako.

Eskualdearen beste bereizgarriak elkarren hurbiltasuna eta lurraldearen hautazko erabilerak dira, industriak ezartzeko edo etxebizitzak eraikitzaiko berdintsu erabiltzen baita lurra; barne komunikagarritasun handia ere beste ezaugarria da, lana, ikasketak, zerbitzuen kontsumoa, eta abar direla eta, bertako biztanleria maiztasun handiz aldatzen baita tokiz.

Tolosaldeko udalerrri askoren neurri txikiagatik zaila edo ezinezkoa gertatzen da Tolosaldeko herritarrek, kalitatez eta kopuruz, nahikoa zerbitzu izatea, eta are gutxiago udalerrri bakoitzak horiek ordaindu beharko balitu.

Udalerrri txikien neurriek galerazten dute askotan, herri txiki hauetako biztanleek dituzten eskubideak izatea, eta ondorioz, ez dute bizitzaren kalitatearekin eta kohesioarekin erlazio zuzena duten zerbitzuak emateko ahalmenik; horien artean kokatuko dugu, ZABORRAREN TRATAMENDURAKO ETA HONETARAKO BEHARREZKOA DEN GIZARTE SENTSIBILIZAZIOAREN INGURUKO ZERBITZUA EMATEA.

Halako ikuspegitik, emaitza begien bistakoa da. Hiritarrak, etxebizitza duten udalerrria kontutan hartu gabe, eskubideetan berdinak baldin badira ere, bizilekuak eskubideen eraginkortasuna baldintzatzen du. Faktore horrek zerbitzu maila desberdinak baldintzatzen ditu. Udalerrri txikietako bizilagunek aukera gutxiago izaten dute eta hori gizarteko eremu gehienetan nabari izaten da.

Eskualde honetan, historikoki hiri hondakinen arazoak suposatu duen arazoa kontutan harturik, benetako irtenbide batetarako bideak jartzea da lehentasuneko lana.

Gero eta hondakin gehiago sortzen dira, gizarteko zenbait balorek ere horretara bultzatzen gaituztelako. Balore oker hauek gaintitu, eta gutxiago kontsumitu, berrerabilpena zabaldu, eta azken instantzian birziklaia landu beharrendaren aurrean, eskualde mailan sintonia berdinak sortzea beharrezkoa ikusi dugu, batipat gizartearen sentsibilizazioan oinarrituriko lana izango delako.

Esan dugun bezala jakitun gara arazo larri hau konpontzea premiazko behar bat dela eta kolaborazio asmoarekin eta betebeharrak amankomuna erabiliz bizilagunen eskaerei erantzuna ematearren, MANKOMUNITATE BAT ERATZEA SUSTATZEN DUGU.

1986ko uztailaren 11ko, Entitate Lokalen Populazio eta Lurralde Mugaketaren Erreklamenduaren 31. eta hurrengo artikulak ikusirik,

Udal Batzarrari, hurrengo erabakia hartzea proposatzen zaio:

### **ERABAKIA**

LEHENGOA.- TOLOSALDEKO HONDAKIN SOLIDOEN TRATAMENDURAKO MANKOMUNITATEA eratu eta sorrera prozesuan sustatzailea izatea.

BIGARRENA.- 1986ko uztailaren 11ko Populazio eta Lurralde Mugaketaren Erreklamenduko 35.1.a) artikuluan aurreikusten den Asanbladan Udal Batzarraren zinegotzien parte hartzea baimendu eta bide batez, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Alkatea izendatu, hauen ordezkari bezala Estatutuak egiteko Batzordean.

HIRUGARRENA.- Irura Udaleko Alkatea den Marimi UGALDE, Estatutuak egiteko Batzordearen Lehendakaria izatea baimendu, Mankomunitatearen Estatutuen Proiektua lanak egiteko behar diren, zuzendaritza, koordinazio eta laguntza teknikoaren proposamena ahalmen osoz, izaera honen organo kolegiatu batean beharrezkoak diren gainontzeko ohizko ahalmenekin batera.

TOLOSALDEKO HONDAKIN SOLIDOEN TRATAMENDURAKO MANKOMUNITATEA eratu eta sorrera prozesuan sustatzaile izateko proposamena, eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## 6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

### "LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA ETA U-2 SEKTOREAREN ERAIKUNTZA-AURRERAKINA" IZENeko DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEA ONARTZEKO ERABAKIA

**IKUSIRIK** 1988ko ekainaren 4an Gipuzkoako Foru Aldundiak Lizartzako Udalerriko Arau Subsidiarioak behin-betirako onartu zituela.

**IKUSIRIK** Udal honetako Sarrera Erregistroan, Gipuzkoako Lizartzako Arau Subsidiarioen Aldaketa eta U-2 Sektorearen Eraikuntza Aurrerakina" izeneko dokumentua, 1997ko Martxoaren 19an aurkeztu dela, izapidetzeko helburuarekin.

**IKUSIRIK** dokumentu hori behar bezala izapidetzeak udalerrriak "U-2" Sektoreko -Insalus lantegiaren aurrean eta Araxes ibaiaren eskuineko ertzean dauden 130 Errepide Nazionalaren alboko lursailak hartzen ditu- indarrean dagoen plenamendu orokorreko hirigintza-ordenazioaren Aldaketa eragin dezakeela.

**KONTUTAN HARTUZ,** Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legegilearen 128. artikuluan ezarritakoaren arabera, Plan, Proiektu, Programa, Arau eta Ordenantzarako edozein elementu aldatzeko jarraitu beharreko xedapenak, elementuok tramitatu eta onartzeko erabilitako berberak izango dira.

**KONTUTAN HARTUZ** Hirigintza Planeamenduko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 125. artikularen arabera, lanak nahiko aurreratuta daudenean jendaurrean ezarri beharko direla gutxienez 30 eguneko epean, iragarkia Probintziako Aldizkari Ofizialean eta bertan gehien hedaturiko egunkarian txertatuz. Pleneamenduko irizpide, helburu eta konponbide orokorrak gauzatu eta iradokizunak egin ahal izango

dira eta, hala badagokio, baita Udaletxe, elkarte eta herritarren bestelako planeamenduen alternatibak aurkeztu ere.

Aurrekon guztia eta toki-erregimeneko oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.n) artikuluan ezarritakoa ikusirik, Lurzoru erregimenaren neurri liberalizatzailerik eta Elkargo Profesionalei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legeak emandako idazketa berriari jarraiki, udalerrri honetako Alkatetza-Lehendakaritzak honako Erabaki hau hartu du:

**LEHENA.-** Gipuzkoako "Lizartzako Arau Subsidiarioen Aldaketa eta U-2 sektorearen Eraikuntza Aurrerakina" izeneko dokumentua jendaurrean jartzea hogeitamar eguneko epean erabaki honetako xedapenen bigarren puntuari adierazitako komunikabideetan ateratako azken argitalpenetik zenbatzen hasita, iradokizunak egin ahal izateko, eta hala badagokio, Udaletxe, Elkarte eta herritarrek bestelako planeamendu-alternatibak aurkezteko.

**BIGARRENA.-** Lehen aipatutako jendaurreko epearen irekitzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien hedaturiko egunkarian argitaratzeko agintzea.

M<sup>a</sup> LUISA ARRATE Andereari, Kale Nagusia, 13ko etxearen teilatuari erretila emateko baimena.

JULEN ARRATIBEL Jaunari, Intxaurreko baserriko teilatuari erretila emateko baimena.

RAMON BENGOETXEA ALTUNA Jaunari, Hirurena etxe barruko uraren tuberia lekuz aldatzeko baimena.

M<sup>a</sup> JOSE ZABALA OTERMIN Andereari, Toki Alai etxeko 2. esk.ko bizitzaren leihoak aldatzeko baimena.

JOSE SALSAMENDI ARTOLA Jaunari, Istileta Goikoa baserriaren ondoan Estalpea berritzeko baimena.

LUXIA GARMENDIA GARMENDIA Andreari, Kale Nagusia 8ko 1.go solairuan dagoen etxebizitzan bainugela konpontzeko baimena.

INAXIO ALTUNA AZURMENDI Jaunari, Kale Nagusia, 14ko Errekaldeko fatxada margotzeko baimena.

#### 7.- LIATZATIK NARBAITZURA (MAIBERATIK) DIHOAN BIDERAINO DOAN BIDEAREN ARAZOA

Gaiak zuzenki ikuitzen dioenez, Alkateak, Batzar aretotik ateratzeko eskatzen dio, Jose Arzadun Egiluz zinegotziari.

Jarrian, Alkateak, Liatzatik Narbaitzura (Maiberatik) dihoan bideraino doan bidearen arazoaren berri eman du, izan eta eman diren pausuak agertuaz.

Jose Salsamendi Artola Jauna, NAN 72.437.334, Istileta Goikoa Baserrian bizi denak, Ezkiotik Narbaitzura (Maiberatik) dihoan bide nagusiarekin bat egiten duen uneraino luzatzen den eta bere jabetzako terrenoa zeharkatzen duen eta, Jose Arzadun Egiluz Jaunak, Besabeko herri bide horretan, hesiak jarriaz, pasabidea oztopatzen duela eta, bidea berrekuratzeko aurrera eraman den prozedura aztertu da, zeinetan, garbi geratu da, bere erabilera publikoagatik, administrazioko jabetza egiaztatu eta hesiak jarriak, bidearen erabilera oztopatu dela.

Guzti horregatik, Udalbatzarrari zera proposatu zaio:

1.- Jose Arzadun Egiluz Jaunari, errekerimendua egitea, hamabost egunetako epean, jarritako hesiak kenduaz, bidearen erabilera libre uztea.



2.- Epe hori igaro ondoren, Udalak berak egingo du, kostuak, Jose Arzadun Egiluz Jaunaren gain joango direlarik.

Gaia sakonki aztertu eta eztabaidatu ondoren, Herri Batasunako 4 zinegotzien aldeko eta Lizartzako Herriaren Aldeko 2 zinegotzien abstentzioarekin, gehiengo batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdiak direnean.